

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

1666

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita Reciclajes Hierros y Metales Santurce, SL enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa, hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko jarduerarako, Izarrako San Vicente kalea z/g, Urkabustaizko Udala (Araba), Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-baimen bakarra lortzeko.

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen arabera, ingurumen-baimen bakarra behar da I.B. eranskinean jasotako jardueraren bat egiten egiten duten titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzeko.

Ingurumen-baimen bakarraren bidez, egintza bakar batean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aldeztutako emandako administrazio-prozedura bakar batean integratuko dira hondakinak sortzeko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsas-lehorreko jabari publikora nahiz atmosferara isurketak egiteko baimenak, eta kasuan kasuko isurtzeko muga-balioak finkatuko dira, aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak 36. artikuluan ezartzen duenez, behin eskabidea aurkeztu, eta dokumentazioa osatuta dagoela egiaztatutakoan, instalazio- edo jarduera-proiektua jendurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horretarako, aldeztutako iragarkia jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa.

Horiek horrela, AAU01200 espedientea jendurrean jarri behar da, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, egoki irizitako alegazioak edo oharrak aurkez daitezten.

Jendurrean jartzeko izapidea bete behar duen instalazioaren dokumentazioa jendearen eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 13a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.